

PRINCESSES. REBÉCCA DAUTREMER

ERAKUSKETA

AIETE KULTUR ETXEA

AZAROA 12 -24

Ordutegia

Astelehen eta jai egunetan itxita

Asteartetik ostiralera: 16:00-20:30

Larunbata: 10:00-14:00 / 16:30-20:00 Igandea: 10:00 – 14:00

Aiete Kultur Etxeak, **Literaktum 2019** jaialdiaren eskutik, Rebécca Dautremer frantziar ilustratzaile ospetsuaren hamar lan originalen erakusketa aurkezten du.

Erakusketa honetan, printzesa ahaztuak eta ezezagunak aurki daitezke: oso txikia den Pepita Pitonisa printzesa; Oihaneko Liliana printzesa, agindupeko oso bitxiak dituena (tximinoak, sugeak, bufaloak ...); Hondarretako printzesa, Saba erreginaren alaba eta dunetan dagoen hareazko gaztelu batean bizi dena; ahizpa siamdarrak diren Siam erreinuko Ding eta Dong printzesak; Tremenduskah printzesa, aingeru aurpegia duena baina deabrua dena; Elurretako erreginaren biloba den Izotzen printzesa, izotz eta beirazko jauregi izugarri batean bakarrik bizi dena... eta abar.

Rebecca Dautremer

Frantziar jaioa (Gap, 1971), Dautremer-ek argazkilaritza oso gustukoa du eta arte grafikoak ikasi zituen. Gautier-Languereau argitaletxean ilustratzaile gisa lan txikiak egin ondoren, 1995ean bere lehenengo albuma egin zuen eta hainbat editoreekin hasi zen lanean.

L'Amoureux (Maitalea) albumarekin batera hasi zen bere estilo propioa garatzen. 2004an *Princesses oubliées ou inconnues* (Printzesa ahaztuak edo ezezagunak) liburua kaleratu zuen, ospe handia lortuz. Liburu honen jatorrizko hainbat ilustrazio aurkituko ditugu Aieteko erakusketan.

Rebécca Dautremer ilustratzaile handiaren sekretuak erakusgai izatea, luxua eta plazera da. Egile frantsesak antzerki, kartel eta publizitaterako diseinuak ere egin ditu, eta mundu mailan ilustrazioaren erreferentia bihurtu da.

KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 151 E. kultura_komunikazioa@donostia.eus
www.donostiakultura.eus